Lanak entregatuko dira SPKL 210. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta horiek udaleko zerbitzu teknikoek aztertu ondoren, proposatuko da horiek onartzea, edo, kontrakoa bada, idatziz emango dizkio kontratistari beharrezko jarraibideak, antzemandako akatsak zuzentzeko, jasoaraziz horiek zuzentzeko epea.	La entrega de los trabajos se sujetará a lo dispuesto en el art. 210 de la LCSP, que previo examen de los mismos por los Servicios Técnicos Municipales, se propondrá su recepción, o, en caso contrario, dará por escrito al contratista las instrucciones precisas para remediar los defectos observados haciendo constar el plazo para ello.
Kontratuaren xede den prestazioa bukatu eta gehienez 30 eguneko epean, egingo da kontratuaren onarpen ekintza formala eta positiboa, zerbitzuaren behin betiko txostena ematerakoan beteko dena.	En el plazo máximo de 30 días desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción de la misma, que se llevará a cabo mediante la entrega del informe definitivo del servicio.
Era berean, HILABETEKO epea ezarri da, onarpen formala egiten den egunetik aurrera, zeina ezarri den berme gisa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean xedatutakoen ondorioetarako.	Asimismo, se establece un plazo de UN MES a contar desde la fecha de recepción formal, que se fija como garantía a los efectos previstos en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la referida Ley.
Berme epe horretan, kontratista izango da akats eta bizioen arduraduna, halakorik agertzen bada egindako lan eta prestazioetan.	Durante este plazo de garantía la contratista será responsable por los defectos o vicios que puedan manifestarse en los trabajos o prestaciones realizadas.

Epe hori igarotzen bada administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.	Transcurrido dicho plazo sin objeciones por parte de la Administración quedará extinguida la responsabilidad de la contratista.
22. PENALITATEAK KONTRATISTARI, BETE EZ DITUELAKO	**22. PENALIDADES A LA EMPRESA CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO**
A) KONTRATUAREN EXEKUZIO EPEAK	A) DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO
Baldin eta enpresa kontratatua berandu ibili bada kontratuaren exekuzio epea betetzeko orduan, enpresari berari egotzi dakizkion kausengatik, bai epe osoari dagokionez bai, hala badagokio, epe partzialei dagokienez, administrazioak aukera egin ahal izango du, aintzat hartuta kasuaren egoerengatik, kontratua amaitzeko, bermea galduz, edo eguneroko penalitateak ezartzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan.	Si la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiese incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales, la Administración podrá optar, atendidas por las circunstancias del caso, por la resolución del mismo, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1000 euros del precio del contrato.
Berandu ibiltzeagatik penalitateak iristen diren bakoitzean kontratuaren prezioaren ehuneko 5en multiplo batera, Kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua amaitzeko edo kontratuaren exekuzioarekin jarraitzea erabakitzeko, penalitate berriak ezarrita.	Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el Órgano de Contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
B) PRESTAZIOEN EXEKUZIO PARTZIALARI BURUZ EDO PRESTAZIOAK AKATSEZ BETETZEARI BURUZ	B) DE LA EJECUCIÓN PARCIAL O CUMPLIMIENTO DEFECTUOSO DE LAS PRESTACIONES
Baldin eta enpresa kontratatuak, berari egotzi dakizkion kausengatik, ez badu betetzen kontratuan definitutako prestazioen exekuzio partziala edo prestazioak akatsez betetzen baditu,	Cuando la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido la ejecución parcial o cumpliera defectuosamente las prestaciones definidas en el contrato, la

administrazioak aukera egin ahal izango du era berean kontratua amaitzeko, eta bermea galduko du, edo eguneroko penalitateak ezartzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan, eta horiekin batera kalte-ordaina, sortutako kalte eta galerengatik.	Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, junto con la indemnización por los daños y perjuicios causados.
C) KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA	C) DEL INCUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES ESPECIALES DEL CONTRATO
Baldin eta enpresa kontratatuak, berari egotzi dakizkion kausengatik, ez baditu betetzen kontratuaren baldintza bereziak, administrazioak aukera egin ahal izango du era berean kontratua amaitzeko, eta bermea galduko du, edo eguneroko penalitateak ezartzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 1 euroko proportzioan, eta horiekin batera kalte-ordaina, sortutako kalte eta galerengatik.	Cuando la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido las condiciones especiales del contrato, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 1 euro por cada 1.000 euros del precio del contrato, junto con la indemnización por los daños y perjuicios causados.
23. AZPIKONTRATATZEA	**23. SUBCONTRATACIÓN**
Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 215. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskatutako baldintzak bete egin behar direnez, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati bat hitzartu dezake beste hirugarren batzuekin.	De conformidad con lo establecido en el artículo 215 de la Ley de Contratos del Sector Público, y sometido al cumplimiento de los requisitos exigidos, la empresa adjudicataria podrá concertar con terceros la realización parcial del contrato.
Azpikontratuak egiteko, enpresa kontratatuak idatziz jakinarazi beharko dio administrazioari zer azpikontratu egingo den eta enpresa azpikontratatuak kontratuaren zer zati egingo dituen.	La celebración de los subcontratos estará sometida a que la empresa contratada dé conocimiento por escrito a la Administración del subcontrato a celebrar, con indicación de las partes del contrato a realizar por la empresa subcontratada.
Orobat, enpresa kontratistak eman beharko dizkio administrazioari azpikontratistaren izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria,	Además, la empresa contratista deberá de aportar a la administración la identidad, datos de contacto y representante legal del subcontratista, así como la

baita ere, haren gaitasunaren justifikazioa, egin behar duen kontratuaren zatia exekutatzeko.	justificación de la aptitud de este para ejecutar la parte del contrato que vaya a realizar.
Edozelan ere, adjudikaziodunak beregain hartuko du ardura osoa kontratua exekutatzeko udalaren aurrean, bai eta enpresa azpikontratistek, egonez gero halakorik, betebeharrak betetzekoa ere, gizarte edo lan kontuei buruz.	En cualquier caso, la empresa adjudicataria asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente al Ayuntamiento, incluido el cumplimiento por las empresas subcontratistas, si las hubiera, de las obligaciones en materia social o laboral.
24. KONTRATUA LAGATZEA	**24. CESIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua laga ahal izango da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 214. Artikuluan jasotako mugekin eta baldintzekin.	El contrato podrá ser objeto de cesión con los límites y requisitos del artículo 214 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
25. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK	**25. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
Hona hemen zer arrazoi dagoen kontratua suntsitzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta 313. artikuluetan ezarritakoaz gain:	Constituyen causas de resolución del contrato, además de las establecidas en los artículos 211 y 313 de la Ley de Contratos del Sector Público, las siguientes:
a) Betebeharrak ez betetzea, adierazitakoak baldintza teknikoen agirian.	a) El incumplimiento de las obligaciones señaladas en el Pliego de Condiciones Técnicas.
b) Teknikoki adjudikaziodunari ezinezkoa zaiola kontratuko xede diren lanak betetzea.	b) La imposibilidad técnica de la adjudicataria para cumplir las prestaciones objeto del contrato.
Kontratua suntsituko da, bermea galduta edo galdu barik, kontuan izanik alde batak zein besteak zuzenbidez kalte-ordainak ere izan ditzakeela.	La resolución del contrato, con o sin pérdida de garantía, se producirá sin perjuicio de las indemnizaciones que a favor de una u otra parte fueren procedentes en derecho.

26. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK	**26. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN**
Administrazioari dagozkio prerrogatibak kontratua interpretatzeko, kontratua betetzetik sortzen diren zalantzak argitzea, aldatzea onura publikoko arrazoiengatik, erabakitzea kontratua suntsiaraztea eta haren ondorioak zehaztea, betiere muga batzuen barruan eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintzei eta ondorioei lotuta.	Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la misma.
27. HIZKUNTZA BALDINTZAK	**27. REQUISITOS LINGÜISTICOS**
Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Arrasateko Udalaren Euskararen Erabilera Plana, Osoko Bilkurak 2013ko abenduaren 17an onartutakoa, eta plan horretako hizkuntza irizpideak finkatzeko akordioa, Udalbatzak 2018ko abenduaren 11an hartutakoa.	Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otros, el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Arrasate, aprobado en sesión plenaria de 17 de diciembre de 2013, y el acuerdo de fijación de los criterios lingüísticos de dicho plan, adoptado por el Pleno con fecha 11 de diciembre de 2018.
Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxienezko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek	El Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su artículo 18 establece las determinaciones que los planes de normalización del uso del euskera deben recoger, entre ellas la siguiente: "18 d) Medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las

herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bermatu daitezen." Hori dela eta, administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontratazioetarako orrietan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkion edo ez.	tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceros sean prestados a los ciudadanos en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente". En consecuencia, los pliegos de contratación de las administraciones públicas y sus organismos autónomos contendrán una cláusula que especifique en cada caso si deben aplicarse o no las determinaciones establecidas por el artículo 18.d) del Decreto 86/1997, de 15 de abril.
Hizkuntza baldintzak, agiri honetan jasotzen direnak, funtsezko obligaziotzat jotzen dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako; hortaz, baldintzok bete ezean, kontratuaren gainerako baldintzen antzeko ondorioak izango ditu: zigorrak aplikatzea edo kontratua amaitzea.	Los requisitos lingüísticos que se recogen en los presentes pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial de la Ley de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede tener consecuencias idénticas al del resto de condiciones, es decir, la aplicación del sistema sancionador o la resolución del contrato.
Arrasateko Udaleko Euskararen Erabilera Planak ezarritakoaren arabera, enpresa adjudikaziodunak dagozkion hizkuntza irizpideak erabili beharko ditu.	De conformidad con lo establecido por el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Arrasate, la empresa adjudicataria deberá utilizar criterios lingüísticos correspondientes.
a) Euskararen Erabileraren Planak ezarritakoaren arabera, Arrasateko Udalaren lan hizkuntza euskara dela kontuan izanik, enpresa adjudikaziodunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) euskaraz izango dira.	a) Considerando que la lengua de trabajo del Ayuntamiento se desarrolla en euskera, las relaciones tanto verbales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, …) de la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento se llevarán a cabo en euskera.
b) Aurreproiektua parte-hartze publikoko prozesu baten mende jarri ahal izango denez, horretarako behar den dokumentazioa (memoria, planoak, panelak) euskaraz eta gaztelaniaz prestatu beharko da.	b) Dado que el anteproyecto podrá someterse a un proceso de participación pública deberá prepararse la documentación necesaria para el mismo (memoria, planos, paneles…) en euskara y castellano.
c) Berrurbanizazio proiektuaren ondorengo agiriak	c) Los siguientes documentos del proyecto de

euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira: memoria, aurrekontuaren laburpen orria eta planoak (izenburuak eta hitzak).	reurbanización se deberán redactar en euskera y castellano: memoria, hoja resumen del presupuesto y planos (títulos y leyendas).
d) Kontratuari esleitutako lantaldeko pertsona batek gutxienez, 3. hizkuntza eskakizunaren pareko maila beharko du.	d) Al menos una de las personas del equipo técnico asignado al contrato deberá contar con un nivel de euskera equiparable al perfil lingüístico 3.
28. HIZKUNTZA BALDINTZEN BETETZE MAILAREN JARRAIPENA	**28. SEGUIMIENTO DEL GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES LINGÜÍSTICAS**
Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak jarraipena egingo dio ezarritako hizkuntza baldintzen betetze mailari, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen bezalatsu eta antzeko epeetan, eta horren berri emango dio Euskara zerbitzuari, zeinak oniritzia emango dion edo zuzenketa neurriak proposatuko dituen.	La unidad administrativa promotora del contrato será responsable de hacer un seguimiento del cumplimiento de los requerimientos lingüísticos establecidos en él, de modo análogo al seguimiento del resto de condiciones y en plazos similares, dando cuenta de ello al Servicio de Euskera, quien dará su aprobación o propondrá medidas correctoras.
Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluei jarraiki:	De conformidad con el artículo 62 y 210 de la Ley de Contratos del Sector Público:
- Kontratuaren arduradunak ikuskatuko du kontratua zelan betetzen den, jarraipena egingo du jakiteko hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu eta jarraibideak eman.	- La persona responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento del contrato, hará seguimiento de la correcta observancia de los requerimientos lingüísticos, y adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin.
Kontratu arduradunak ikuskatuko du ez bakarrik bukatutakoan, modu jarraian ere bai, jarraipen euskarri espezifikoak erabilita, sortu daitezkeen hutsegiteak zuzentzeko.	La persona responsable del contrato realizará la inspección no solo a su finalización, sino de modo continuado, mediante soportes de seguimiento específicos, que permitan corregir los errores que se detecten.

29. KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK.	**29. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.**
Kontratua betetzeko honako baldintza berezi hauek ezartzen dira. Baldintza hauek ez betetzeak zigorrak jartzea ekarriko du, salbu eta espresuki zehazten direnak, zeini kontratuaren funtsezko obligazio izaera ematen zaien, kontratua deuseztatzeko arrazoitzat har daitezkeelako.	Se establecen las siguientes condiciones especiales de ejecución del contrato, el incumplimiento de las cuales dará lugar a la imposición de penalidades, salvo las que se determinen expresamente que se les confiere el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos de su consideración como causa de resolución del contrato.
1. Kontratua exekutatzearen baldintza bereziak lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunarenean:	**1. Condiciones especiales de ejecución en materia laboral, de seguridad social, y de seguridad y salud en el trabajo:**
Enpresa kontratistak derrigorrean bete behar ditu lanari buruz indarrean dauden legezko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun edo higienekoak, kontratu honetako xede diren zerbitzuetan enplegatzen dituen langileei dagokienez, eta administrazioak ez du izango inolako erantzukizunik xedapen horiek ez badira betetzen.	La empresa contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, con respecto al personal que emplee en los servicios objeto de este contrato, quedando la Administración exonerada de responsabilidad por este incumplimiento.
Gainera, enpresa adjudikaziodunak, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.	Además, la empresa adjudicataria, previamente a la firma del contrato, deberá indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato.
Enpresa kontratatuak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.	La empresa contratada deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a cada persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.

Kontratazioa ■

Esp. kodea: 2022CHOZ0034
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU

Gaia: Doneztebe Portuko eta Santa Teresa Kaleak berrurbanizatzeko proiektua idaztea eta obra zuzentzea
Hasiera data: 2022/10/28

2. Kontratua betetzeko baldintza bereziak azpikontratazioaren alorrean	**2. Condiciones especiales de ejecución en materia de subcontratación:**
Enpresa kontratistak justifikatu ahal izan beharko du, enpresa azpikontratatuei bidezkoak diren datuak eskatu ondoren, enpresa horiek ere lanak egitean bete egiten dituztela indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.	La empresa contratista deberá estar en disposición de poder justificar, después de haber solicitado a las empresas subcontratadas los datos oportunos, que estas empresas también aplican en la ejecución del contrato las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, seguridad social, y seguridad y salud en el trabajo, que les son de aplicación.
Horrela, enpresa azpikontratistak ere, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei; eta, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.	Así, también las empresas subcontratistas, previamente a la firma del contrato, deberán indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato; y deberán, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a cada persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.
3. Hizkuntza baldintza bereziak.	**3. Condiciones especiales de ejecución lingüísticas:**
Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.	Debido a que este contrato deberá cumplir obligatoriamente el régimen de la doble oficialidad lingüística, las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.
Arrasateko Udaleko Euskararen Erabilera Planak ezarritakoaren arabera, enpresa adjudikaziodunak dagozkion hizkuntza irizpideak erabili beharko ditu.	De conformidad con lo establecido por el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Arrasate, la empresa adjudicataria deberá utilizar los oportunos criterios lingüísticos.

a) Euskararen Erabileraren Planak ezarritakoaren arabera, Arrasateko Udalaren lan hizkuntza euskara dela kontuan izanik, enpresa adjudikaziodunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) euskaraz izango dira.	a) Considerando que la lengua de trabajo del Ayuntamiento se desarrolla en euskera, las relaciones tanto verbales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, …) de la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento se llevarán a cabo en euskera.
b) Aurreproiektua parte-hartze publikoko prozesu baten mende jarri ahal izango denez, horretarako behar den dokumentazioa (memoria, planoak, panelak) euskaraz eta gaztelaniaz prestatu beharko da.	b) Dado que el anteproyecto podrá someterse a un proceso de participación pública deberá prepararse la documentación necesaria para el mismo (memoria, planos, paneles…) en euskara y castellano.
c) Berrurbanizazio proiektuaren ondorengo agiriak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira: memoria, aurrekontuaren laburpen orria eta planoak (izenburuak eta hitzak).	c) Los siguientes documentos del proyecto de reurbanización se deberán redactar en euskera y castellano: memoria, hoja resumen del presupuesto y planos (títulos y leyendas).
d) Kontratuari esleitutako lantaldeko pertsona batek gutxienez, 3. hizkuntza eskakizunaren pareko maila beharko du.	d) Al menos una de las personas del equipo técnico asignado al contrato deberá contar con un nivel de euskera equiparable al perfil lingüístico 3.
4. Ingurumeneko baldintza bereziak:	**4. Condiciones especiales de ejecución medio ambientales:**
Proiektuak maximizatu behar du materialen aprobetxamendua, eraiste hondakin direnena, eta minimizatu behar du isurtegirako den frakzioa.	El proyecto deberá maximizar el aprovechamiento de los materiales que constituyen residuo de demolición, minimizando la fracción destinada a vertedero.
Hondealanetan eta eraiste lanetan hondakinak sortuko dira ahalik eta gutxien eta materialak berrerabiliko dira in-situ ahalik eta gehien.	Se deberá minimizar la generación de residuos y maximizar la reutilización in-situ de los materiales procedentes de excavaciones y demoliciones de la obra.

5. Prozedura ez bada betetzen	**5. Procedimiento en caso de incumplimiento.**
Enpresa kontratatzaile batek urraketaren bat egin duelako susmoa badago, eta hori frogatzeko Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailetzaren (LGSI) esku-hartzea behar bada, laneko arau-hausterik dagoen ikusteko, kontratuaren zuzendariak aurretik proposatuta, kontratazio-organoak egoeraren berri emango dio LGSIri.	Si se considera que alguna empresa contratista puede haber incurrido en algún incumplimiento, y cuando su constatación requiera una actuación inspectora de la ITSS, el órgano de contratación, previa propuesta formulada por el director o directora del Contrato, pondrá esta circunstancia en conocimiento de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, por si la misma pudiera ser constitutiva de infracción laboral.
Urraketa egon dela bi modutan berretsi ahal izango da, LGSIk ikuskaritza egin eta laneko zehapena ezarrita edo epai judizial bat emanda, haietako edozein behin irmotasuna lortu ondoren.	La constatación del incumplimiento vendrá determinada por la imposición de una sanción laboral tras la correspondiente actuación inspectora de la ITSS o el pronunciamiento de una Sentencia judicial, una vez alcance firmeza cualquiera de ellas
Gainerako urraketen kasuetan, Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailetzaren egiaztapenik behar ez denetan, kontratuaren zuzendariak eskatu beharko du espedientea zabaltzea.	En el resto de incumplimientos, cuya constatación no requiera una actuación inspectora de la Inspección de Trabajo, el expediente se iniciará previa propuesta del director o directora del contrato.
Edozein kasutan ere, espedientearen ebazpena eman aurretik, entzun egingo zaio enpresa kontratistari.	En todos los casos, previo a la resolución del expediente, se dará audiencia a la empresa contratista.
Zehapenei dagokienez, kontratistari egin behar zaizkion ordainketa zatikatuetatik edo osotik egoki den kopurua kendu egingo da. Ziurtagirietatik ezin bada zehapen-kopurua kendu, berme-kopurutik kenduko da, halakorik balego.	Las penalidades que se impongan se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse a la empresa contratista, o sobre la garantía, que, en su caso, se hubiese constituido, cuando no puedan deducirse de las certificaciones
Gainera, atal honetan azaltzen diren betebeharrak asetzeko egin beharreko gastuak adjudikaziodunaren kontu izango dira eta sartuta egongo dira kontratua gauzatzeko eskainitako	Además, los gastos derivados del cumplimiento de las obligaciones recogidas en este apartado serán por cuenta de la empresa adjudicataria y estarán incluidos en el precio ofertado para la ejecución del

prezioan.	contrato.
IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.	**IV.- NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE**
30. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	**30. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**
Kontratuak, agiri hauetan oinarrituta egonez gero, izaera administratiboa izango du, eta kontratuan xedatzen ez den guztian jarraituko zaio arau hauetan xedatzen denari: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, zati batean garatzen duena 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuena, baita ere, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, onartua 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koa, eta gainerako arauak, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkionak administrazio publikoen kontratazioari.	El contrato que en base a estos pliegos se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto, específicamente en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, y demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas.
Kontraesanik izanez gero administrazio klausula berezien, agiri honen eta espedienteari lotuta gainerako dokumentazio teknikoaren artean, nagusituko da agiri honetan zehaztutakoa.	En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.
31. JURISDIKZIO ESKUDUNA	**31. JURISDICCIÓN COMPETENTE**
Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren menpe geratuko dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian xedatutakoarekin bat etorriz.	Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

Kontratazioa ■

Esp. kodea: 2022CHOZ0034
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU

Gaia: Doneztebe Portuko eta Santa Teresa Kaleak berrurbanizatzeko proiektua idaztea eta obra zuzentzea
Hasiera data: 2022/10/28

Kontratazioari buruz errekurtso berezia jarri daiteke, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak 44.2 artikuluak aipatzen dituen erabakien aurka, aipatu legearen 50. artikuluan adierazitako hitzetan, baldintzetan eta epeetan.	Procederá la interposición del Recurso especial en Materia de Contratación contra las decisiones a que se refiere el artículo 44.2 de Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público en los términos, condiciones y plazos indicados en el artículo 50 de la citada Ley 9/2017.
Errekurtsoaren erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezingo da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legean, uztailaren 13koa, xedatutakoaren arabera.	Contra la resolución del recurso solo procederá la interposición de recurso contencioso-administrativo conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.
Arrasaten, 2023ko maiatzaren 5ean.	En Arrasate, a 5 de mayo de 2023
Kontratazio ataleko teknikaria	El técnico de la Unidad de Contratación

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
ELENA.IZARRA.URIARTE
2023/05/18

EGINBIDEA:

Nik neuk egin dut, Udaleko idazkariak, agerrarazteko Administrazio Klausulen Agiri hau Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuela 2023ko maiatzaren 11an.

DILIGENCIA:

La extiendo yo, la Secretaria del Ayuntamiento, para hacer constar que el presente Pliego de Cláusulas Administrativas fue aprobado por la Junta de Gobierno Local de fecha 11 de mayo de 2023.

Kontratazioa ■

Esp. kodea: 2022CHOZ0034
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU

Gaia: Doneztebe Portuko eta Santa Teresa Kaleak berrurbanizatzeko proiektua idaztea eta obra zuzentzea
Hasiera data: 2022/10/28

IDAZKARIA

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
ANA.BELEN.HIDALGO.CORRAL.
2023/05/18

I. ERANSKINA	ANEXO I
PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA	MODELO PROPOSICIÓN ECONÓMICA

Kontratazioa ■

Esp. kodea: 2022CHOZ0034
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU

Gaia: Doneztebe Portuko eta Santa Teresa Kaleak berrurbanizatzeko proiektua idaztea eta obra zuzentzea
Hasiera data: 2022/10/28

Izena: ..... Helbidea:	D./Dña..... .....con domicilio en.....
PK ……., NA zk. ……., tel……..	CP....., DNI nº....., teléfono.....
Nik ahalmen eta gaitasun juridiko osoa dut jarduteko, nire izenean edo……. …… ……. ordez	en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de..... .....
Helbidea ……...	con domicilio en ....
PK....., telefonoa ...., eta NA edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa izan) zk.: ...., jakin dut Arrasateko Udalak prozedura bat deitu duela prozedura ireki bidez kontratatzeko **"DONEZTEBE PORTUKO ETA SANTA TERESA KALEAK BERRIRO URBANIZATZEKO PROIEKTUA" IDATZI ETA OBRAK ZUZENTZEKO"** zerbitzua, eta adierazten dut:	CP....., teléfono ...., y DNI o CIF (según se trate de persona física o jurídica nº ....), enterado/a del procedimiento abierto convocado por el Ayuntamiento de Arrasate para la contratación del servicio **"DE REDACCIÓN Y DIRECCIÓN DE OBRA DEL "PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DE LAS CALLES DONEZTEBE PORTUKO Y SANTA TERESA EN ARRASATE"**, declaro:
1) Konpromisoa hartzen dut aipatu lana ondorengo prezioetan egiteko:	1º) Que me comprometo a su ejecución por el precio de:
- **Proeiktua idaztea**: ..... …… euroan, gehi ……..... €, …….%-ko BEZ-ari dagozkion euroak,	- **Redacción de Proyecto**: .....€, más ……. €, correspondientes al ……. % de IVA.

Kontratazioa ■

Esp. kodea: 2022CHOZ0034
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU

Gaia: Doneztebe Portuko eta Santa Teresa Kaleak berrurbanizatzeko proiektua idaztea eta obra zuzentzea
Hasiera data: 2022/10/28

- **Obra Zuzendaritza lanak**: ..... …… euroan, gehi ..... €, …….%-ko BEZ-ari dagozkion euroak,	- **Dirección completa de las obras**: ....€, más ……. €, correspondientes al ……. % de IVA.
eta prezioan sartzen dira kontzeptu guztiak, barne harturik edozein zerga esferaren zergak, gastuak, tasak eta arielak, bai eta enpresariaren irabazi industriala ere.	y conforme a las características que figuran en las prescripciones técnicas, debiendo entenderse comprendidos en el precio todos los conceptos incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial de la contratista.
2) Konpromisoa hartzen dut proiektua idazteko gehieneko epea murrizteko, …… aste murriztuta.	2º) Que me comprometo a una reducción del plazo máximo para la redacción del proyecto, en …….. semanas.
3) Konpromisoa hartzen dut gehieneko epea murrizteko, obra bukaerako dokumentuak egiteko, …… aste murriztuta.	3º) Que me comprometo a una reducción del plazo máximo para la elaboración de la documentación final de obra, en …….. semanas.
4) Ezagutzen ditut Baldintza Teknikoen Agiria, Administrazio Baldintza Berezien Agiria eta kontratu honek jarraitzen dituen gainerako agiriak, zeinak berariaz eta osoki neure gain hartzen eta ontzat jotzen ditudan.	4º) Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.
5) Ordezkatzen dudan enpresak indarreko arauek eskatutako baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditu irekita, instalatuta eta jardunean aritzeko.	5º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento.
6) Halaber, lan eta zerga arloan araututakoa betetzeko obligazioa neure gain hartzen dut.	6º) Que asimismo, me obligo al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral y tributaria.

Kontratazioa

Esp. kodea: 2022CHOZ0034
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU

Gaia: Doneztebe Portuko eta Santa Teresa Kaleak berrurbanizatzeko proiektua idaztea eta obra zuzentzea
Hasiera data: 2022/10/28

7) Borondatez onartzen dut gardentasun instituzionala ematea datu guztiei, lizitazio, adjudikazio eta exekuzio prozesutik datozenak, kontratua amaitu arte.	7º) Que acepto voluntariamente dar transparencia institucional a todos los datos derivados del proceso de licitación, adjudicación y ejecución hasta la finalización del contrato.
(non) ....., (noiz)..... ….....ren ….(e)an	En....., a..... de…..... .....de 20.....
Sinadura	Firma
*** Balio Erantsiaren gaineko Zerga agertu behar da eskaintzan, xehaturik. Gainera, kontratuari aplikatu dakizkiokeen oinarria eta zenbatekoa adieraziko dira, hura erregulatzen duen araudiaren arabera. Eskaintza xehaturik ez badago, baztertu egingo da.**	*** En la oferta deberá figurar de manera desglosada el Impuesto sobre el Valor Añadido, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora. En caso de que la oferta no se encuentre desglosada la misma será rechazada.**

II. ERANSKINA	**ANEXO II**
INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)	**DECLARACIÓN DE AUSENCIA DE CONFLICTO DE INTERESES**
Kontratuaren edo deialdiaren izena: …… ……..	Nombre del contrato o la convocatoria: …… …….
Espedientearen erreferentzia:…… ……..	**Referencia del expediente:** …… …….
(Deklaratzailearen identitatea)……..…… .., *(Erakunde deitzailea)* ……..……..-(a)n nire zerbitzuak egiten ditut ,…….…….. gisa, eta ……..…..……..…… ……..….,	*Nombre del declarante*) ……..…….., doy mis servicios en ……..…….*(Entidad convocante)*, como ……..…….. (*Cargo)*, y ……..…..……..…… ……...….,
ADIERAZTEN DUT:	**DECLARO:**
LEHENENGOA. Honako hauen berri izatea:	**PRIMERO.** Conocer: 1. El artículo 61.3 "Conflicto de intereses" del

Kontratazioa

Esp. kodea: 2022CHOZ0034
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU

Gaia: Doneztebe Portuko eta Santa Teresa Kaleak berrurbanizatzeko proiektua idaztea eta obra zuzentzea
Hasiera data: 2022/10/28

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiaren (EBren Finantza-araudia) "Interes-gatazka" 61.3 artikuluak ezartzen du "interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, afinitate politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoirengatik".

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen "Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa" 64. artikuluaren helburua lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatzaile guztiei tratu-berdintasuna ziurtatzea da.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen "Abstentzioa" 23. artikuluak ezartzen du prozeduran ez dutela esku hartu beharko "hurrengo atalean adierazitako inguruabarretako bat duten Administrazioetako agintariek eta langileek". Honako hauek dira:
   a. Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaian edo haren ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunaren administratzailea izatea, edo interesdunen batekin konpondu gabeko auziren bat izatea.
   b. Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailako odol-ahaidetasuna edo

Reglamento (UE, Euratom) 2018/1046 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de julio (Reglamento financiero de la UE) establece que "existirá conflicto de intereses cuando el ejercicio imparcial y objetivo de las funciones se vea comprometido por razones familiares, afectivas, de afinidad política o nacional, de interés económico o por cualquier causa directa o indirecta de interés personal".

2. El artículo 64 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, "Lucha contra la corrupción y prevención de conflictos de intereses", tiene por objeto evitar cualquier distorsión de la competencia, garantizar la transparencia del procedimiento y asegurar la igualdad de trato a todos los candidatos y licitadores.

3. El artículo 23 "Abstención" de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece que no deberán intervenir en el procedimiento "las autoridades y el personal al servicio de las Administraciones en las que concurra alguna de las circunstancias señaladas en el apartado siguiente". Son los siguientes:
   a. Tener interés personal en el asunto de que se trate o en otro cuya resolución pudiera resultar afectada, ser administrador de la sociedad o entidad interesada o tener cuestión litigiosa pendiente con algún interesado.
   b. Tener vínculo matrimonial o situación de hecho asimilable, y parentesco de

bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunetako administratzaileekin eta prozeduran parte hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, bai eta bulego profesionala partekatzea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo agintaldirako. c. Aurreko paragrafoan aipatutako pertsonaren batekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna izatea. d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana. e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoarekin zerbitzu-harremana izatea, edo azken bi urteetan edozein motatako eta edozein egoera edo lekutan zerbitzu profesionalak eman izana.	consanguinidad dentro del cuarto grado o de afinidad dentro del segundo con cualquiera de los interesados, con los administradores de las entidades o sociedades interesadas y con los asesores, representantes legales o mandatarios que participen en el procedimiento, así como compartir despacho profesional o estar asociado con ellos para el asesoramiento, la representación o el mandato. c. Tener amistad íntima o enemistad manifiesta con alguna de las personas mencionadas en el apartado anterior. d. Haber intervenido como perito o como testigo en el procedimiento de que se trate. e. Tener relación de servicio con persona física o jurídica interesada directamente en el asunto o haber prestado en los dos últimos años servicios profesionales de cualquier naturaleza y en cualquier circunstancia o lugar.
BIGARRENA. Ez nagoela/gaudela Europar Batasunaren Finantza Araudiaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez nagoela/gaudela lizitazio-/emakida-prozedurari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio-arrazoirik.	**SEGUNDO**. Que no se encuentra/n incurso/s en ninguna situación que pueda calificarse de conflicto de intereses de los señalados en el artículo 61.3 del Reglamento Financiero de la Unión Europea, ni incurre/n en causa de abstención del artículo 23.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público que pueda afectar al procedimiento de

	licitación/concesión.
HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen dudala kontratazio-organoari, ebaluazio-batzordeari edo hierarkian gorago dagoenari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo eragin lezakeen edozein interes-gatazka edo abstentzio-kausa, eta ebaluazio-prozesuan eta prozedura honekin lotutako jarduera guztietan parte hartzeari utziko diodala.	**TERCERO.** Que se compromete a poner en conocimiento del órgano de contratación, del comité de evaluación o de su superior jerárquico, sin demora, cualquier conflicto de intereses o causa de abstención que genere o pueda generar esta situación, y a abstenerse de participar en el proceso de evaluación y en todas las actuaciones relacionadas con este procedimiento.
LAUGARRENA. Konfidentzialtasunez tratatuko ditudala prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, eta ez dudala desegoki erabiliko prozedura horietan parte hartzeagatik ematen zaidan informazioa.	**CUARTO.** Que trataré con confidencialidad los asuntos y documentación que se desarrollen en el marco de dichos procedimientos, y que evitaré el uso inadecuado de la información que se me facilite por mi participación en los mismos.
BOSGARRENA. Ezagutzen dut interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak, ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.	**QUINTO**. Conozco que la prueba de la falsedad de una declaración de inexistencia de conflicto de intereses conlleva las consecuencias disciplinarias, administrativas y judiciales que establece la normativa aplicable.
(non) ....., (noiz)..... ….....ren ….(e)an	En....., a..... de….....de 20.....
Sinadura, izen osoa eta NAN	Firma, nombre completo y DNI